

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

Industria Administrazioiko Arabako Lurralde Ordezkaritza

Jendaurrean erakusten diren aurretiazko administrazio-baimenaren eskaera eta ingurumen-inpaktuaren azterlana, Legutioko udalerriko (Araba) «Válvulas Villarreal» Aterpez Kanpoko Transformazio-zentroko deribazioan «4656-03 Villarreal» eroale-aldaketa izeneko 13,2 kV-ko airetiko linea elektrikoaren proiektuari lotuta daudenak

Energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuak 9. eta 10. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako (2020-04-24ko EHAA), Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak 53. artikuluan xedatutakoaren arabera (2013-12-26ko BOE), Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin bat etorritik (2012-12-11ko BOE) eta Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrari lotuta (1998-03-27ko EHAA), jendaurrean erakusten dira honako proiektu honi dagozkion baimen-eskaera eta ingurumen-inpaktuaren azterlana:

– Eskatzailea: «I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, SAU», helbidea Urartea kalea 2 helbidean duena.

– Eskaera: aurretiazko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena, proiektuak ingurumen-inpaktuaren azterlan arrunta behar duelako.

– Helburua: inguruko energia elektrikoaren horniduraren kalitatea hobetzea.

– Erreferentzia: 01ATY 202000038.

– 13,2 kV-ko aireko linea elektrikoa «4656-03 Villarreal» eroale-aldaketa dela-eta «Válvulas Villarreal» Aterpez Kanpoko Transformazio-Zentroko deribazioan; 1.349 metroko luzera izango du eta honela egingo da: lehendik dauden hormigoizko 18 euskarri eta txapazko euskarri 1 desmuntatzea, saretazko 7 euskarri eta hormigoizko euskarri 1 eraikitzea, lehendik dauden euskarrietan gurutzetak ordezkatzeta eta instalatzea, hegazti-fauna babesteko tartea egokitzea, eta eroalea ordezkatzeta.

– Linearen ibilbidea: Legutioko udalerrria (Araba).

– Aurrekontua: 38.787,53 euro.

– Baimena emateko organo eskuduna: Industria Administrazioiko Arabako Lurralde Ordezkaritza.

Proiektua jendaurrean jarri zen, 2020ko urriaren 21eko ALHAOn eta 2020ko urriaren 7ko EHAAAn argitaratutako bi iragarkiren bidez, onura publikokotzat jo zedin.

Hori guztia argitara ematen da, eta 30 eguneko epea ematen da, iragarki hau argitaratzen den egunetik aurrera, interesdunek eta herritarrek dokumentazioa azter dezaten Industria Administrazioiko Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz) eta Interneteko webgunean (www.euskadi.eus), Energia eta meategiak/Energia ataleko proiektuen jendaurreko informazioan (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/energia-meategiak/hasiera/>), eta egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 13a

Industria Administrazioiko Arabako lurralde-ordezkarria
JESÚS PASCUAL LORENTE